



## AKTEA/01

**BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**  
**(2022-01-18)**

<b>Batzarraren izaera:</b>	Ohikoa
<b>Deialdia</b>	1. deialdia
<b>Data:</b>	2022-01-18 (Asteartea)
<b>Lekua:</b>	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxea) Saio mistoa (Zoom aplikazioaren bitartez)
<b>Hasiera-ordua:</b>	08:04
<b>Amaiera-ordua:</b>	08:08
<b>Alkate-Presidentea:</b>	ABAROA CANTUARIENSE ARITZ
<b>Batzordekideak:</b>	PLATAS ARENAZA M. IDOYA ZUMETA GARRO ALAZNE LEIZAOLA ZULUETA MAITANE LEGARRETA ERKIAGA IBON ZUMETA GARRO KEPA
<b>Bertaratu ez direnak:</b>	
<b>Idazkaria:</b>	LOPEZ ANGULO NEREA

Sinadurea eta data

## DOCUMENTO: 20220556467



## Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2021-12-14 TGB (38)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Mañu auzoko *Biorta* baserri inguruan egurraren aprobetxamendua egiteko lizentzi eskaria onartzea.
- 4.- \*\*\*1158\*\* NAN zenbakidun Gizarte Ongizate Saileko langilearen edoskitze eskaria onartzea.
- 5.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 6.- Eskari eta itaunak

Saioa hasi aurretik, bertaratu diren alkate eta zinegotzi guztiek, euren nortasuna eta espainiar lurraldean daudela egiaztatzeko erantzukizunpeko aitortpena egin dute.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta jarraian deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

### 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2021-12-14 TGB (38)

Bertaratutako batzarkideek 2021eko abenduaren 14ko 38/2021 akta irakurrita, aho batez onartzea erabaki dute.

### 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

### 3.- MAÑU AUZOKO *BIORTA* BASERRI INGURUAN EGURRAREN APROBETXAMENDUA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E600087DB300M3E1J6Y7P0E0

#### Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO-IDAZKARI AKZIDENTALA - 18/01/2022  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 18/01/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/01/2022  
10:31:07

DOCUMENTO: 2022056467

Fecha: 18/01/2022  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



**EGITEKO LIZENTZI ESKARIA ONARTZEA.****Xedea**

Mañu auzoko *Biorta* baserri inguruan egurraren aprobetxamendua egiteko lizentzi eskaria.

**Aurrekariak.**

Lehenengoa: 2021ko azaroaren 29an, herri honetako Mañu auzoan egurraren aprobetxamendua egiteko eskaria aurkeztu eban A-48533046 IFZ zenbakidun enpresak.

Bigarrena: Eskari horretan, Bizkaiko Foru Aldundiko, Nekazaritza Sailak emondako baimena aurkezten dabe, datu honeekin:

Egurraren jabea: A.O.B.

Lekua (Katastro): 7 Poligonoa – 42 eta 224 partzelak

Egurraren kopurua: 7.523,00 m<sup>3</sup>.

Hirugarrena: Udal teknikariek erabiliko diran bideak ikustatu ondoren, argazkiak atara dabez.

Laugarrena: Lanak hasi baino lehen, eta kontuan edukirik egurraren kopurua (7.523,00m<sup>3</sup>), 12.500,00 eurotako fidantza aurkeztu beharko da udal honetan.

Bosgarrena: Aprobetxamenduaz baliatzen diranek (jaubeak), edozein kasutan, bermatu egin beharko dabe, bai bidearen egoera edo beste edozein kasu berezirik aurkezten bada.

Seigarrena: Aprobetxamenduaren jaubeak, udalak agintzen den neurriak hartu beharko dabez.

**Argudioak**

Bakarra: Espediente honetan legezko urrats guztiak bete dira.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzarrak bozketa nominatiboari ekin dio eta aho batez erabaki du:

BAKARRA: A-48533046 IFZ zenbakidun enpresak eskatutako lizentzia emotea. Lanak hasi baino lehen 12.500,00 euroko fidantza aurkeztu beharko da udal honetan.

Egurraren jabea: A.O.B.

Lekua (Katastro): 7. Poligonoa – 42 eta 224 partzelak.

Egurraren kopurua: 7.523,00 m<sup>3</sup>



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E600087DB300M3E1J6Y7P0E0

**Sinadurea eta data**

NEREA LOPEZ ANGULO-IDAZKARI AKZIDENTALA - 18/01/2022  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 18/01/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/01/2022  
10:31:07

DOCUMENTO: 20220556467

Fecha: 18/01/2022  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E600087DB300M3E1J6Y7P0E0



**BESTE BALDINTZA BATZUK:**

## 1. Ezin da erabili:

- Har ibilgailurik.
- Katez elkar lotutako ibilgailurik.
- Zolu gainean irristatzeko ibilgailurik.
- Errodadura bandadun ibilgailurik.
- Gehieneko orotarako pisua 26 tonakoa baina handiagoko ibilgailurik eta hiru baino ardatz gehiago duen kamioirik.
- Ibilgailu astunen zirkulazioa, bereziki, lurra, egurra, apeak eta beste material batzuk garraiatzeko erabilitakoaren baimena ematea Udalaren esku geratzen da, beti ere, uneko eguraldiaren arabera.

## 2. Bideen garbiketa:

- Aprobetxamenduaz baliatzen direnek, edozein kasutan ere, bermatu egin beharko dute bideok edozein erabilgarritasunerako prest izango direla, aprobetxamendua irauten duen bitartean beharrezkoan izan litezkeen garbiketak eta konponketak eginez. Hala egiten ez bada, zeregin honetaz Udala bera arduratuko da, baina kostuan haien kontura izanik.

Dena dela, aprobetxamenduaz baliatuko direnek, ahal duten guztia egin beharko dute, bideotatiko zirkulazioarengan inolako kalterik ez eragiteko. Bideotan ezin izango da enborrik ez adarrik utzi. Gainera, ibilgailuek bideotan utzitako lurrak, harriak eta abar ere baztertu egin beharko dituzte bidetik segidan.

Materialen karga aprobetxamenduaren terreno barruan egin beharko da, eta inoiz ere ez, udalaren errepide gainean.

## 3. Konponketa lanak:

- Txosten teknikoak ikusita, baimena eman zaionari, bideotan egin beharreko konponketen berri, hala balitz, emango zaio, lanok ekiteko epea jakinaraziz. Epe hori bukatu ondoren konponketak egin izango ez balira, Udalak berak egingo dio zeregin honi haren kontura, kostua alde aurretik ezarritako fidantzak kenduko delarik. Fidantzako dirutza nahikoa izan ez balitz, falta den zenbateko guztia eskatuko da harik eta kalte guztiak ordaindu arte.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E600087DB300M3E1J6Y7P0E0

**Sinadurea eta data**

NEREA LOPEZ ANGULO-IDAZKARI AKZIDENTALA - 18/01/2022  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 18/01/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/01/2022  
10:31:07

DOCUMENTO: 20220556467

Data: 18/01/2022  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaada:  
Erregistro nagusia



- Egin dako kalteak konpontzeninak balira, hondatutako ondasunen edo egindako kalteen balioa ordainduko zaio Udalari.

Udal bide berberen aprobeztamenduaz aldi berean bat baino gehiago aprobeztatuz gero, kalterik balitz, erantzukizuna erabiltzaileen bidezko banaketa egingo da.

#### 4. Bitartekaritza, itunebidea eta arbitraia:

- Kalteen edo konponketen balorazioa dela eta, udalaren eta erabiltzailearen artean ez balego adostasunik, bi alderdiok, horretarako ados jarrita, bitartekaritza, itunebide eta arbitraiazko auzitan sartu ahal izango dira, dena dela honetarako hitzarmena, itunea, adostasuna edo kontratua sinatu beharko dutelarik. Auziotatik sor litezkeen gastuak erabiltzailearen kontura izango dira.

#### 5. Harrobiak, mehatz ihardurak eta lurrak lekuz aldatzea:

- Bideok harrobietako materialeak garraiatzeko edo lurrak lekuz aldatzeko erabiltzen badira, iharduera honetaz arduratzen diren enpresak izango dira bideen mantenimenduz ibilbide guztian arduratuko direnak.

Aldiz-aldika bideok ikustatu egingo dituzte udal zerbitzu teknikoak, eta ikusitako kalte guztiak aipatutako enpresa horrek ordaindu beharko dituzte.

### 4.- \*\*\*1158\*\* NAN ZENBAKIDUN GIZARTE ONGIZATE SAILEKO LANGILEAREN EDOSKITZE ESKARIA ONARTZEA.

#### Xedea

\*\*\*1158\*\* NAN zenbakidun Gizate Ongizate Saileko langilearen edoskitze lizentzia eskaria.

#### Aurrekariak

**Bakarra:** \*\*\*1158\*\* NAN zenbakia duen Gizate Ongizate Saileko langileak dagokion edoskitzerako egunean ordubeteko baimena batzea eta 2022ko otsailaren 20tik martxoaren 27ra arte (biak barne) disfrutatzea eskatu du.

#### Argudioak

**Lehenengoa:** Bermeoko Udaleko lan kontratudun lan baldintzak arautzen dituen akordioaren 53. artikulua honako hau ezartzen du:



#### Sinadurea eta data



*"2. Hamabi hilabete baino gutxiagoko seme-alabaren bati bularra emateko, langileek egunean ordu bat lana uzteko aukera izango dute, eta erditze anitza izan bada, baimena proportzionalki areagotuko da.*

*Eskubide honen orde, lanaldi arrunta lanaldiaren hasierako edo amaierako ordu erdia murriztu ahal izango da, helburu berbera izanik.*

*3. Edoskitze artifizialeko kasuetan, lanaldia eteteko edo murrizteko eskubidea amak zen aitak hartu ahal izango du, eta aita izan beharko da alde zurretik arrazoituta eskaera aurkeztuko duena; ama langilea dela eta baimena ezin duela hartu edo hartzerik ez duela nahi egiaztatu beharko du."*

*4. Aurreko paragrafoan aipatutako lizentzia hartzeko eskubidea izango du langileak edo, bestela, egunetik egunera zenbatutako orduak batu eta, langilearen egutegiaren arabera, eta amatasun baja bukatu ostean hartu. Eguneko lizentzia ordua hartzen hasi ahal da, eta epe jakin batetik aurrera batzen hasi eta denak batera hartu. Batu daitezkeen orduak gutxienez hilabete bati dagozkionak izan daitezke.*

...

*6. Lizentzia honen ordutegia eta epea zehaztea pertsonalari dagokio bere ohiko lanaldiaren barruan; pertsonalak bere ohiko lanaldira itzuliko den eguna baino 15 egun lehenago jakinarazi beharko dio erakundeari.*

**Bigarrena:** Bermeoko Udala eta bere organismo autonomoetako langileen lan baldintzak arautzen duen 2004. urterako hitzarmenaren bederatzigarren artikulua ezarritakoaren arabera, emakumezko enplegatu publikoak bere lanaren ordubeteko geldiuenerako eskubidea izango du, **hamalau** hilabetekoa baino gazteagoa den seme-alabaren berezko edospenaldirako edo edospenaldi artifizialerako erabiltzen duenean.

## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzarrak bozketa nominatiboari ekin dio eta aho batez erabaki du:

**BAKARRA:** Bermeoko Udaleko lan kontratudun lan baldintzak arautzen dituen akordioaren 53. artikuluan ezarritakoaren arabera, \*\*\*1158\*\* NAN zenbakia duen Gizate Ongizate Saileko langileak dagokion edoskitzerako egunean ordubeteko baimena batzea onartzea, 2022ko otsailaren 20tik martxoaren 27ra arte (biak barne).



### Sinadurea eta data



**5.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.**

Ez da ezer adierazi.

**6.- ESKARI ETA ITAUNAK.**

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidaturakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

*Orrri oinean sinatzailea eta data*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E600087DB300M3E1J6Y7P0E0

**Sinadurea eta data**

NEREA LOPEZ ANGULO-IDAZKARI AKZIDENTALA - 18/01/2022  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 18/01/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/01/2022  
10:31:07

DOCUMENTO: 20220556467

Fecha: 18/01/2022  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSY: 07E600087DB300M3E1J6Y7P0E0

